



(1961-2012)

Jontxuren omenez

Agur esatea gutxi esatea dek, motel.

Hiri agur esatea agur esatea dek niri,
Juantxori, Maitinari, Edurneri (berriro), Mikel Zerukori,
Tomasi, Xabi Hernandezi, Xabi IIIri,
Sedanori, Iñigo Gili, hire amari,
hire etxeari, Pepiren tabernari, Beartzanari,
San Rokeri, Donosti-berriri, hire anaiarik gazteenari/zaharrenari,
gure plazari (gure auzoari!),
Amarra Zaharreko liskar eta manifestazioei
(gogoratzen? pilotakada eta borretatik ihesi, korrika bizian gu,
Autonomia kaletik gora, gogoratzen...?).

Hiri agur esatea agur esatea dek futbolarari,
disko-makinari, mahai-joko eta karta partidei,
auzoko jaiei, lehen mozkorraldiei, sokamuturrari,
Moraza kalea 16ri, hire amaren meriendatxoei,
Alde Zaharrari, Mendaur eta Erniope tabernei,
parrandei, lagun berriei, euskara-eskolei,
Rosari, Rosaren anaiari, Rosaren Alde Zaharreko etxeari,
mendi-ibilaldi gogoangarri hari, Donostiako hitzorduei,
hire telefono-zenbakiari (4507...)
Artzain Onaren katedraleko koadrilari,
auzoko zine-proiektzioei...

Hiri agur esatea gauza gehiegiri agur esatea dek, motel.

Bizitzak pisua hartu dik. Baina bitxia ematen badu ere,
zenbatenaz astunago izan, orduan eta arinago zihoak.

Egongo gaituk, Jontxu.

Zaindu ondo Edurne besteok iristen garen bitartean.

Eta barkatu hutsak. Hori, batez ere. Barkatu hutsak.

Ni bezalako tontolapikook beranduegi ohartzen gaituk

benetako lagunak zeintzuk ziren,

benetako bidea zein zen,

benetan merezi zuten gauzak zeintzuk ziren.

Hiri agur esan behar izatea ere!!

(P.D.: Ez zekiat zer egin behar dudan lerrook higana bidaltzeko, baina badaezpada ere malkoz bustiko dizkiat, ea seilu modura balio digun...)